

Debaldeko gauzak

Rikardo Arregi

Nire adiskide batek, ea zegaitik euskerearen alde —onek ezetarako balio ez ta— alegintzen dan galdetzen deutsonean, zera erantzuten dau: «Orrexegaitik, ezetarako balio ez dau-lako». Eta egia aundi bat autortzen dau, au erantzuterakoan.

Zenbat aldiz, itzez gitxienean, ez ete da kondenatu gure artean kapitalismoa? Ezin esan. Baiña zer ikusi bear dau kapitalismoak euskerearekin? Ez al da ori, gauzak euren onetik ataratea?

Bizi garean gizarte era onetan, zer da balioduna? Zer da zerbaitek balioa izatea? Utilidadea daukona, errentabilidadea daukona, sal-erosketarako balio dauana. Orixe da gizartean dagoan neurria. Ezin daiteke esan, besterik baga, gauzak beti orrelan neurtzen dirala; baiña bai beti onelan neurtzeko joera indartsua daroala bere baitan sistema onek. Maitasuna, adiskidetasuna, jakitea, pentsatzea, danak diruak neurtzen ditu, diruak emoten deutsez neurria ta balioa gure gizartean. Orixe da sistemeak bere baitan daroan joerea.


«Konsumidu ta ixildu zaitez», diño gizarte onek. Zure eginkizuna zera da, alik eta gauza geiago eukitea: kotxea, nebera etab. Gero ta gauza geiago. Orretarako egin bear dira alegiñak. Pentsatzeak, eritxia izateak etab. ez dauke lekurik or. Gizona gauza biurtzen baita.

Eta ori, ez da kasualidade utsa. Sistemeak ba dauko bere lojikea, eta ba ditu bere neurriak. Sistema aldatu bearra dago, beste lojika bat eta beste neurri batzuk gura baldin baditugu. Balioen eritxi ta neurri barri nai badogu beintzat.

Euskerea bizirik nai dogunok, euskerearekin olgetan eta denpora-pasan ez gabiltzanok, euskerea geure bizitzetan erantsita daukogunok, ez dogu ori egiten, euskereak prezio bat daukolako, gauza komertziala dalako. Gure burrukea, euskerea balioduna egiteko baldin bada —komertziala esan gura dot—, alperrikakoa litzake. Ez da ori euskerearen aldeko burrukearen sentidua.

Ez dau euskereak ezer balio, ez da merkatuan saldu ta erosi daiteken zerbait. Euskereak ez dauko preziorik. Euskerea ez da merkantzia bat.

Gizongintzan, gure gizartearen gizonagotzean burrukan gabiltzanontzat bakarrik euki leike benetako sentidu bat eus-



«Konsumidu ta ixildu zaitez», diño gizarte onek.

kereak. Ez da izkuntza zaarra dalako, ohea edo okerragoa dalako, izkuntzalarientzat interes aundia daukolako, beste gauza bategaitik baiño: gizon konketuak gareanez, gareana aaztu ezin daikegulako, gure gizatasuna aaztu ezin daikegulako.

Euskerea, debaldeko gauzea da. Orrexegaitik gagoz beraren alde. Beste mailla baten aztertzen dogulako, eta ez diruaren eta merkatuaren maillan.

DEI BAT gure arpinduneri

Pozarren esaten deutsuegu, gure aldizkari onetako gauzak len baiño obeto jarri jakuzala, eta ANAITASUNAK oraindik aurrera illean birritan, 15ean eta 30ean, uts egin barik urtengo dauala.

ANAITASUNAN lan egiten dogunok, gero ta obeto argitaratu gura geunke gure aldizkari au. Orretarako, zeuen laguntasuna bear dogu.

Diruaren aldetik ANAITASUNA bear dan moduan ibilli daiten, arpidedun zarien guztiori mesedez eskatzen deutsuegu, Aprillaren barruan, aurtengo ordaiña (75 peseta) bialtzeko.

Ona emen modu bi, bialketa ori egiteko:

- Giro postal a ANAITASUNA c/ Torre, 3, 1.º
- Tranferencia al Banco Popular. c/c n.º.....

Milla esker.

Zuzendaritza